

CL Patrimonio

EZAUGARRI OROKORRAK

a) Fondoaren bokazioa eta kudeaketaren helburua: Errenta Finko Mistoa. Errenta finko mistoko fondoa denez, zorroaren % 30 baino gutxiago errenta aldakorrean inbertituko du eta gainerakoa errenta finkoan. Euroaz bestelako monetetan, berriz, zorroaren % 5 inbertituko du, gehienez. b) Inbertsioak hautatzeko eta banatzeko irizpideak: Fondoak epe ertain eta luzeko errenta finko publiko eta pribatuko aktiboetan inbertituko du. Euroguneko edo ELGAko herrialdeek jaulkitako kalitate handiko aktiboak izango dira, eurotakoak batez ere. Oro har, zorroaren iraupena urte bat eta bost urte bitartekoa izango da. Errenta aldakorreko inbertsioa Espainiako Ibex 35eko baloreetara zuzenduko da batez ere, baina beste inbertsio batzuk Euroguneko baloreetara ere bidera daitezke. Fondoak ez du bere zorroaren % 5 baino gehiago inbertituko, euroaz bestelako monetetan. c) Inbertsioei atxikitako arriskuak: Fondoak kreditu-kalitate handiko balore-jaulkipenetan inbertitzen du. Beraz, kontrako alderdiaren arriskua txikia izango da, berez. Errenta finkoko aktiboetan egindako inbertsioa interes-tasaren arriskuaren mende dago: Fondoak epe luzerako aktiboetan inbertitzen du, batik bat, eta horietan gorabehera handiak izaten dira interes-tasetan. Errenta aldakorrean egindako inbertsioen ondorioz, fondoaren errentagarritasuna inbertitutako merkatuen hegazkortasunaren mende dago. Informazio gehiago behar izanez gero, Fondoaren liburuxka xehatua kontsultatu. Dokumentazioa

Hiruhileko txostenak

- 2.. Hiruhilekoa 20 - 1.. Hiruhilekoa 20 - 4.. Hiruhilekoa 19 - 3.. Hiruhilekoa 19

Seihileko txostenak

- 1.. Seihilekoa 20 - 2.. Seihilekoa 19

Informazio liburuxka

Memoria

- Memoria

